Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Donostiarrok:

1864ko abuztuaren 14an iritsi zen trena Donostiara. Urte horretan bertan, hiria harresiak eraisten hasi zen, harresietatik haratago hazteko prestatzen ari zen. Trenak bizitzeko, lan egiteko eta salerosteko modu berriak ekarri zituen. Mende erdi geroago, 1912ko abenduaren 5ean, Peñaflorida kaletik Irun aldera irten zen trena eta Topoa izena jarri genion.

Mende bat baino gehiago geroago, Donostiak hiri baten norabidea markatzen duten mugarri horietakoa biziko du berriro.

Azaroaren 21etik aurrera, trenek Donostiako erdigunea zeharkatuko dute lurpeko pasabide berritik. Egun horretan Bentaberri, Kontxa-Zentroa eta Amarako geltokiak irekiko dira, eta zazpi minutu eta erditik behin tren bat igaroko da Añorga eta Pasaia artean.

Tren obra bat baino askoz gehiago estreinatzen dugu. Gure auzoak batzeko, elkarrengana hurbiltzeko eta hiria egiten jarraitzeko beste modu bat. Hobeto komunikatua dagoen Donostia. Irisgarriagoa eta jasangarriagoa.

Oso gauza zehatzetan nabarituko dugu: lanera edo klasera iristeko denboran, hiriaren beste aldera norbait ikustera joateko erraztasunean eta, funtsean, egunerokoari irabaziko dizkiogun minutuetan, izan familiarekin nahiz lagunekin egoteko edo, besterik gabe, Donostiaz gozatzeko. Izan ere, hiri bat hobea da bizitza errazten digun heinean.

El 14 de agosto de 1864 llegó el ferrocarril a Donostia / San Sebastián. Ese mismo año la ciudad había empezado a derribar sus murallas y se preparaba para crecer más allá de ellas. El tren trajo nuevas formas de vivir, de trabajar y de comerciar. Medio siglo más tarde, el 5 de diciembre de 1912, salió de la calle Peñaflorida hacia Irun el ferrocarril al que muy pronto empezamos a llamar el Topo.

Hoy, más de un siglo después, Donostia vuelve a vivir uno de esos hitos que marcan el rumbo de una ciudad.

A partir del sábado 21 de noviembre, los trenes atravesarán el centro de Donostia por la nueva pasante soterrada. Ese día abrirán las estaciones de Bentaberri, Kontxa-Zentroa y Amara, y habrá un tren cada siete minutos y medio entre Añorga y Pasaia.

Lo que estrenamos es mucho más que una obra ferroviaria. Es otra manera de unir nuestros barrios, de acercarnos unos a otros y de seguir haciendo ciudad. Una Donostia mejor comunicada, más accesible y sostenible.

Lo vamos a notar en cosas muy concretas: en lo que tardamos en llegar al trabajo o a clase, en lo sencillo que será ir a ver a alguien al otro lado de la ciudad, en los minutos que ganamos para estar con la familia, con las amistades o, simplemente, para disfrutar de Donostia. Porque una ciudad también mejora cuando nos hace la vida más fácil.

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

1864an trenak beste hiri eta udalerri batzuekin elkartu gintuen. Gaur egun, auzoak elkartzen laguntzen digu, eta, orduan bezala, hiri-eraldaketako eta aukeretako aro berria irekitzen du. Halaber, helmuga argia du aro berriak: Donostia Europako hiri oparo eta zoriontsuenetako bat izatea. Eta donostiar erara lortuko dugu: pausoz pauso, umiltasunez eta etengabeko lanarekin.

En 1864 el tren nos unió con otras ciudades y municipios. Hoy nos ayuda a unir los barrios y, como entonces, se abre una etapa de transformación urbana y de oportunidades. Una etapa con un horizonte claro: que Donostia sea una de las ciudades más prósperas y felices de Europa. Y lo vamos a conseguir a la donostiarra: paso a paso, con humildad y trabajo constante.

Eskerrak eman nahi dizkiet obra hau ahalbidetu duten pertsona guztiei eta, bereziki, urteetan zehar zaratarekin, hautsarekin eta lanen eragozpenekin bizi izan diren bizilagunei eta saltokiei. Eskerrik asko zuen pazientzia eta ulermenagatik. Aurrerapen horren zati handi bat zuena da.

Quiero dar las gracias a todas las personas que han hecho posible esta obra y, muy especialmente, a las vecinas y vecinos y a los comercios que durante años han convivido con el ruido, el polvo y las molestias de los trabajos. Gracias por vuestra paciencia y vuestra comprensión. Buena parte de este avance os pertenece.

Geltoki berriak ezagutzera gonbidatzen zaituztet, zuen egunerokoan Topoa erabiltzera eta eskaintzen digun guztiaz gozatzera.

Os invito a conocer las nuevas estaciones, a usar el Topo en vuestro día a día y a descubrir todo lo que nos ofrece.

Ospa dezagun Donostiako historiaren atal berri hau. Azaroaren 21ean Topo berri bat estreinatuko dugu eta, horrekin, hiri batuago eta etorkizunerako hobeto prestatuago baterantz pausoa emango dugu.

Celebremos este nuevo capítulo de la historia de Donostia. El 21 de noviembre estrenamos un nuevo Topo y, con él, damos un paso hacia una ciudad más unida y mejor preparada para el futuro.

Donostiak aurrera egiten jarraitzen du.

Donostia sigue avanzando.

Batera, bagera.

Donostia, 2026ko azaroaren 19a

Jon Insausti Maisterrena
Donostiako alkatea